



Ehunmilak: Euskal Herriko Txapelketa 2018

Euskal Mendizale Federazioaren eskutik uztailaren 13-14-15 asteburuan jokatu den Ehunmilak Ultra Trailaren 9. edizioa izango da distantziako 2018ko Euskal Herriko Txapelketa.

168 kilometro eta goranzkoan 11.000m-ko ibilbidea, Gipuzkoako mendietan egiten dena Beasainen abiatu eta amaituta.

Iaz Silvia Trigueros eta Raul Macarrok jantzi zituzten Txapelak BUTS zirkuituko Iruña-Donostian, ea 2018koan zer gertatzen den.

Maila gorenean guztiz egonkortutako dago jada Ehunmilak, Arrastaka Mendi Taldeak antolatzen duen proba. 473 partaide izango ditu, tartean 21 neskak, 50 atzerritarrak eta 24 goierritar.

Asteburu berean, G2 Handiak Goierri Trail eta Marimurumendi Maratoia lasterketak ere egingo dira. Lasterketa guztiak batuta ia 1300 korrikalari.

Lasterketen aurkezpenean **Irati Anda** EMF-ko Zuzendari Teknikoak parte hartu zuen. **Arrastaka Mendi Taldeari** eta urdin kolorez lanean arituko diren boluntarioei eskerrak emateaz batera "*proba aurrera ateratzeko duten ilusioa eta borondatea*" azpimarratu zituen. "*EMF-ren lana eta ardura Euskal Herriko Txapelketak erakargarri egitea da, eta Ehunmilak eredu bikaina da horri begira*", esan zuen. Agerraldian, harekin batera izan ziren **Aitor Aldasoro** Beasaingo Alkatea, **Eneritz Toledo** Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Teknikaria, **Imanol Muñoz** Ternuako Global Marketing Zuzendaria, eta **Andoni Zubeldia** Ehunmilak lasterketako Zuzendaria.

2018ko Euskal Herriko lineako Txapelketa, bakarka nahiz taldeka, Oñatin egin zen Aloñako Igoera lasterketan. Bertikalen Euskal Herriko Txapelketa Uharte-Arakil-Berriain izango da, irailaren 23an. Hiru Txapelketek 2018ko EMF Rankingerako balio dute.





EMF Rankinga 2018

Igor Urionabarrenetxea aulestiarrak EMF Rankingeko lidertzari eusten dio nahiz azken lau probetan parte hartu ez duen. **Beñat Katarain** zegamarra izan da azken probetako indartsuena –Triku Trail eta Lakuntza-Aralarren euskaldun onena-, eta laugarren postura igo da. **Maite Etxezarreta** azpeitiarrak, bere aldetik, sailkapen orokorreko lehen postua berreskuratu du, **Lorena Guinaldo** azken boladako lider eibartarrarekin berdinduta, hori bai. Etxezarretak azken bi probetan –Triku Trail eta T3T- bigarren amaitu du. Rankingeko 18 proba puntuagarrietatik gehienez sei emaitza onenak hartuko dira kontuan. Urionabarrenetxeak bost ditu, eta Etxezarretak eta Guinaldok launa.

EMF RANKINGA 2018

GIZONEZKOAK

1. Igor Urionabarrenetxea (Arrolape)	4964
2. Alfonso Castellanos (Zortzietako)	4670
3. Mikeldi Solana (Trail Erraz)	4573
4. Beñat Katarain (Goierri Garaia)	3994
5. Xabier Azpirotz (Txurregi)	3937

EMAKUMEZKOAK

1. Maite Etxezarreta (Sokaitz)	3994
2. Lorena Guinaldo (Trail Erraz)	3994
3. Beatriz Villegas (Zortzietako)	3984
4. Ainara Uribarri (Aloña Mendi)	3971
5. Vanessa Pelaez (Sestao Alpino)	2999

EMF TXAPELKETAK 2018

APIRILA

22 Linea [Aloñako Igoera](#) Oñati

UZTAILA

13-15 Ultra [Ehun Milak](#) Beasain

IRAILA

23 Bertikala [Uharte Arakil-Beriain](#) Uharte-Arakil

EMF RANKINGA 2018

URTARRILA

13 Linea [Kalamua Barinaga jaitsiera](#) Markina-Xemein

MARTXOA

24 Linea [Kolaziño Mendi Eguna](#) Bedia

APIRILA

28 Ultra [Nafarroa Xtreme](#) Zubiri

29 Linea [Pagoeta Mendi Lasterketa](#) Zarautz

EKAINA

2 Ultra [EH Mendi Erronka](#) Leitza

2 Linea [Galdames Mendi Bira](#) Galdames

9 Linea [Gabez Takarraran](#) Eskoriatza

10 Linea [Intxixu Trail](#) Oiartzun

10 Linea [Lakuntza Aralar](#) Lakuntza

17 Linea [Amurrio Trail](#) Amurrio

17 Linea [T3T](#) Tolosa

24 Linea [Triku Trail](#) Etxarri-Aranatz

IRAILA

9 Linea [Axari Trail](#) Idiazabal

15 Bertikala [Intza Ttutturre](#) Intza

URRIA

6 Bertikala [Anboto KB](#) Atxondo